

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lina Lerindegi

*Garralda,
Nafarroa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Garraidan jaioa eta hazia.
Artzain familiakoa. Bizi
guztian egin izan ditu gaztak.
Ikastaroa ere egin zuen
Donezteben Idiazabalgo
Gazta izenduna egiten
ikasteko. Hainbat sariketa
irabazi dituzte.

Zintak

GRR-001

- **Proiektua:** Alex Artzelus Mujika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Data:** 2009-08-08
- **Iraupena:** 43 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Artzelus, Alex

GRR-003

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1992-01-01
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. Umetan euskaraz, orain erdaraz

- **Erref:** GRR-001/002
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Gizona euskalduna du, Atetz bailarakoa, baina erdaraz egin ohi dute elkarrekin. Anaia Ameriketara du, eta hasieran telefonoz-eta euskaraz egiten zuten, baina aspaldian erdaraz. Eskolara joan zirenean ez zekiten erdararik.</p>

Transkripzioa

- Ez duzue elkarrena hola... pixkat... ezer egiten?
- Bueno, gure elkarren artean...
- Kontajiatu elkarri...
- Elkarren artean igual erderaz egiten dugu gehiena, e?
- A bai, e?
- Bai, bai. [Etzego] atzentzen berari ta ni ere ez. Ta nik dut anaia bat Canadian eta [etzego] atzendu euskara. Horrengatik erraten dut hogei urteak artio dugula estudiatu... ez, elekatuz...
- Canadian, eta euskaraz badaki berak.
- Bai, bai.
- Ta telefonoz hitz egiten duzunian?
- Pues badu urte batzuk ezetz, baia, lemezian, urte aunitzetan, euskaraz.
- Bai, bai, bai, bai.
- Eta orai ere hasi bagina euskaraz, pues, seguruenik ere bai.
- Ze, berak, zer egingo du? Euskeraz ta gero frantsesaz edo, Canadian, ez?
- Ez, inglesa.
- Inglesez hitz egiten du?
- Inglesa, bai.
- Inglesa. Zuk ez duzu jakingo inglesik, orduan...
- Nik ez.
- ... euskaraz egin behar.
- Euskaraz edo erderaz.
- A, erderaz ere badaki.
- Erderaz. Bai, bai. Joan ze 26 urtetan.
- Ya, ya, ya. Bai, bai, [...], bai.
- Hogeta sei edo zortzi. Zortzi zituelaik, bai.
- Ta zuek txikiak ziñelaik hemen guzia euskaraz egiñen zen, ez?
- Bai, bai. Dena, dena, dena.
- Dena?
- Dena.
- Inguru danak euskaraz.
- Eskolara abiatu ginelik gu, ene anaia zaharrenak ez zakie elekan, gauza aunitz ez zakie.
- Erderaz?
- Erderaz. Dena...

2. Euskarazko idazketa lehiaketa antzina

- **Erref:** GRR-001/004
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:06:27. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Auzoko batek, bera baino 12 urte zaharragoa, irabazi zuen txikitan

euskarazko idazketa-lehiaketa, baina gero, nonbait, debekatu egin zuten euskara. Gaur egun emakume horrek ez omen daki deus ere.</p>

Transkripzioa

- Zizue... ene... hamabi urte gehiago zituen etxeakoandre bat gemen, barridean.
- A, bai?
- Eta irabazi zue premia. Pues izan ze eskolako denboran. Baina gero, nik uste prohibitu zuten euskara elekatzea. Eta goraka zu, ze gero emazteki horrek ez zakie deus´e.
- Ya, gure kasuan, gure kasuan...

3. Gurasoekin eta anai-arrebekin euskaraz

- **Erref:** GRR-001/006
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Beti euskaraz egiten zuten etxean, bakoitza bere lekura joan arte. Gero ez.

Transkripzioa

- Guri...
- "Los caseros" esaten guri...
- Guk beti elekatu gindue aita eta amekin, beti.
- Beti euskeraz.
- Eta anaien artean ere bai, e? Lau anea eta laurek elekatu dugu elkarrekin. Pues bakotxa bere aldera fan ondoan, pues ya ez dira elekatzen, baina, beti. Beti.
- Ya, ya, ya. Gero...
- Erraten dute hamar mila urte dituela, euskarak.
- Zenbat?
- Hamar mila. Diez mil.
- Izein du!
- Edo gehiago! Ez dakit.
- Edo gehiago.
- Norbaitek daki, noiztik honata!
- Nork daki, noiztik.
- Handi zaharra.
- Mila urte erraten (di)tuzte zernahi gauzendako orai. Baina orduan, nor izan zei...

4. Abeltzain lanak

- **Erref:** GRR-001/007
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:08:04. **Bukatu:** 00:10:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Ardiekin artzain eta behiekin "unai" joaten ziren mendira. Neguan oihanera joan ohi ziren bazterretan bazelako belar luze bat "alkamia" izeneko belar bat, eta besterik ezean, hura jatera.</p>

5. Elurte handiak lehenago

- **Erref:** GRR-001/008
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:10:25. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Bederatzi urte zituela, 1945ean, elurte izugarria egin zuen. Lehenengo solairura arte heltzen zen elurra.

6. Donibane Garazira merkatura

- **Erref:** GRR-001/009
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:14:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Iruñearekin harreman handiagoa dute Iparraldearekin baino, baina lehenago Donibane Garazira joan ohi ziren astelehenez egiten den merkatura.</p>

7. Harreman handia Orbaizetaren eta Ezterenzubiren artean

- **Erref:** GRR-001/011
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:14:45. **Bukatu:** 00:16:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Orbaizetatik erraz pasatzen da muga. Goian bi bide daude, bata Donibanera eta bestea Ezterenzubira. Ezkontzak Orbaizeta eta Eszerenzubi artean.

8. Ortzainzurieta eta Napoleon mendiak

- **Erref:** GRR-001/013
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:19:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:

Ortanzurieta, leku guztietatik ikusten den mendia. Napoleon mendia, berriz, Luzaideko errepidetik ikusten da. Donibaneraino heltzen den "loma" omen da.

9. Bi aldiz erre da Garralda

- **Erref:** GRR-001/014
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 00:19:20. **Bukatu:** 00:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Azkenekoz duela 108 urte erre zen Garralda. Teilatu batek su hartu zuen eta ia herri guztia, eliza barne, erre zen. Bazterretako bat edo beste libratu zen bakarrik.</p>

10. Hilabeteen eta asteko egunen izenak

- **Erref:** GRR-001/017
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:26:32. **Bukatu:** 00:27:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Hilabeteen izenak eta asteko egunak Garraaldan nola esaten diren.

Transkripzioa

- Eta abuztua gehien-gehienak uskaraz, erran duguna.
- Abuztua, bai, bai, bai, bai.
- Baina gero, pues, septiembrea, octubrea... hola.
- Ta asteko egunak?
- Julio?
- E?
- Asteko egunak?
- Astelena, asteartea, asteazkena, ortzeguna, ortzilara, eta igandea.
- Oso ondo.
- A, larunbata eta igandea.
- Bai, bai, gu bezela.
- Bai.
- Eta julio erraten zinien garagarrila edo...?
- Pues akaso lenagoko zarrek igual bai, baina guk ez!
- Julioa.
- Senideek erran datzue hola.
- Julio. Julioa ta...
- Eta junioa?
- Eta junioa ere bai.

- Eta maiatza?
- Maiatza bai, euskaraz.
- Maiatza, baina gero... bestia ez.
- Baina bertzeak ez. Gehiago erderaz.
- Bai.
- Baina beti akatuz -a.
- Ya.

11. Eskolara beharrean alorrera lanera

- **Erref:** GRR-001/018
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:27:17. **Bukatu:** 00:30:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Uste du 14 urte arte joan zela eskolara, baina sarritan egiten zuen huts, baserriko lanetan lagundu behar zelako. Txikitan, behin aitari gosaria eramatera joan zelarik igitaia hartu, garia ebakitzen hasi eta ebakia zauria egin zuen atzaparrean.</p>

12. Behien aurrean (itulan) ibiltzearen lanak

- **Erref:** GRR-001/020
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:30:42. **Bukatu:** 00:31:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Behien aitzinean (itulan) egin behar izaten zuen umetan. Euliak ganaduen gorputzetatik uxatzea izaten zen itularien lanik txarrenetarikoa.

13. Ardia: hankamina eta zesarea

- **Erref:** GRR-001/021
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:31:46. **Bukatu:** 00:33:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Gazta esaten dute, ez gasna. Hankamina nola sendatzen den. Jaiotzen lagundu izan du eta zesarearen bat edo beste egitea ere tokatu zaio.</p>

14. Gaztagintza

- **Erref:** GRR-001/022
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:33:35. **Bukatu:** 00:36:32

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Beti egin izan dute gazta gutxi edo gehiago. Gazta nola egin eta "tostatzen" zuten azaltzen du. Tostatuta gero, politak geratzeaz gain, oso usain gozoa botatzen zuten. Donezteben gaztagintzako ikastaro bat egin zuten berak eta semeak.</p>

15. Gaztagintzari utzi egin zioten

- **Erref:** GRR-001/023
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:36:32. **Bukatu:** 00:39:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Diru-laguntzak-eta badira, baina pertsona bakarra ez da aski gaztagintzarako eta utzi egin behar izan zioten. Senarra artzaina ("artzea") izaki, askotan ezin ardiak utzi eta gaztagintzan laguntzera etorri.</p>

16. Gaztagintza prozesua

- **Erref:** GRR-001/024
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:39:00. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Egunean 25-30 gazta egiten zituzten bere sasoian. Prentsan ezarri, atera, garbitu, salmueran ezarri... Lan handia du gazta batek. Eta gainera ardiak jetzi. Oso ondo saltzen zuten. Sariak ere irabazi zituzten, Huarte Arakilen, esaterako.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com